



AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
2.	Zioen azalpena	9
2.1	Agiri hau egiteko arrazoiak	9
2.2	Testuinguru sozial, politiko eta instituzionalaren berrikuntzak	23
2.3	Planaren birformulazioaren orientabide oinarritzkoa	24
3.	Azalpen-zatia	29
4.	Zati substantiboa: printzipioak eta helburuak berrikustea	32
4.1	Birformulazioaren helburua	33
4.2	Printzipio gidari nagusiak	34
4.3	Printzipio gidari substantiboak	36
4.4	Antolamendu-printzipio gidariak	44
4.5	Ildo estrategikoak, Helburu orokorrak eta Helburu espezifikoak	47
4.6	Birformulazioa laburtuta	49
5.	Zati operatiboa: planaren eragileak, antolaketa eta kudeaketa	52
5.1	Erakunde-eragileak, eta gizarte zibilaren, komunikabideen eta ikastetxeen papera	52
5.2	Planaren kudeaketa eta koordinaziorako organoak	54
5.3	Programatutako ekintzen segimendua eta ebaluazioa	56
5.4	Aurrekontua	60
6.	Zati operatiboa: ekintzen birformulazioa	61
7.	Zati operatiboa: ildo estrategikoetan bildutako ekintzak	65
8.	Zati operatiboa: Programa estrategikoen arabera bildutako ekintzak	70
9.	Zati operatiboa: programa sektorialak	76
9.1	Lehendakaritza	76
9.2	Justizia eta Herri Administrazio Saila	77
9.3	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	79



9.4	Kultura Saila	87
9.5	Herrizaingo Saila	89
9.6	Foru-aldundiak eta Eudel	91
9.6.1.	Arabako Foru Aldundia	91
9.6.2.	Bizkaiko Foru Aldundia	93
9.6.3	Gipuzkoako Foru Aldundia	97
9.6.4	Udalak-Eudel	101
10.	Dokumentazioa	104
11.	Eranskina. Jardueren fitxa banakotuak.	105

1. Sarrera

Euskadiko herritarrak libreak izatea eta denak eskubide eta betebeharrak izatea du helburu gobernuak, eta helburu horrek gidatuko du jardun politikoa. Sistema demokratikoa eta zuzenbide-estatu defenstatuta bakarrik lor daiteke helburu horiek bermatzea.

Demokrazian sakontzea eta tolerantziaren, pluraltasunaren eta gutxiengo politikoen defentsa funtsezkoak dira bizikidetasun demokratikoa bermatzeko.

Zalantzarik gabe, terrorismoak gaur egun oraindik ere irautea herritarren askatasunari egindako eraso zuzena da, herritarren iritzi librea ukatzeko modurik muturrenekoa. **ETAren terrorismoari amaiera ematea funtsezkoa da askatasuna ezartzeko.**

Terrorismoa politikoki, sozialki eta etikoki deslegitimatzea oso sakoneko kezka da, eta euskal gizartearen gehiengoak hala sentitzen du. Halaber, lehentasunezko helburua da gobernu honentzat, ETAren terrorismoari amaiera emateko helburuarekin batera, jakina.

Gobernu honek, terrorismoaren aurkako borroka, elkarren osagarriak diren hiru esparrutan oinarritzen du: terroristak jazartzea eta atxilotzea, zuzenbide-estatuak horretarako ematen dituen legezko bitarteko guztiak erabiliz; terrorismoaren bortizkeria babesten eta justifikatzen duten jarrera eta jokabideak kritikatzeko eta horiei aurre egiteko; eta balio demokratikoak sustatzea eta orokortzea.

Zeregin neketsua da hori, gizarte honen kontzientzia kolektiboari eragiten diona, eta denon artean egin behar diogu aurre, borondate irmoz, kementsu,